Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko maiatzaren 2a, asteartea — 82 — Martes, a 2 de mayo de 2017

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZPEITIKO UDALA

*Iragarkia*

Azpeitiko Udalak, 2017ko otsailaren 7an egindako Osoko Bilkuran, Kultura Sailak kudeaturiko programen baitan, «Sorkuntza» bekak emateko oinarriei haserako onarpena ematea onartu zuen (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2017ko otsailaren 22an, 37. zk).

Arauak eskatzen duen jendaurreko argibide epea inolako alegaziorik eta oharpenik izan gabe igaro denez, bere edukia argitaratuko da, eta jakinarazi 2017ko deialdia ere barneratuta dagoela.

*«Sorkuntza» bekak emateko oinarri arautzaileak.*

I. XEDEA

*1. artikulua. Xedea.*

Deialdi honen helburua da sortzaile berriei, kultur sorkuntzarako «Sorkuntza» bekak eskatzeko eta emateko prozedura arautzea.

Kultur sorkuntza bezala ulertzen da, artistaren imajinaziotik eratorritakoa, zeinak musika, pintura, eskultura, literatura obra, antzerki obra, zine obra, komikia, soinu konposizioa, ikus-entzunezko konposizioa, konposizio digitala, dantza etab.

Beka hauen helburua, sortzaileei beraien obra sortzeko laguntza ekonomikoa ematea da.

*2. artikulua. Ezargarri den araudia.*

Diru-laguntza hauek ematerakoan, eta onuraduna eta erakunde emailea elkarrekin lotuko dituen harreman juridikoa finkatzerakoan, oinarri hauek eta diru-laguntzak ematen direnean indarrean diren arauak bete beharko dira:

— Azpeitiko Udalak diru-laguntzak emateko ordenantza arautzailea (2012ko maiatzaren 29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 101. zk.).

— Azpeitiko Udalaren eta Euskara-Patronatuaren diru-laguntzen indarrean dagoen Plan Estrategikoa.

Oinarri hauetan aintzat hartu ez diren kontu guztietarako, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (*Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 2003-11-18koa) eta Lege hori garatzeko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Arautegiak diotena hartuko da kontuan.

*3. artikulua. Onuradunak.*

Beka hau, kultur eremuren batean diharduten edo hasi nahi duten pertsona fisikoek lor ditzakete.

Horrez gain, eskatzaileak nahitaez egiaztatu beharko du diru-laguntza eskatzeko datan 16 urteko adina betea izatea.

Onuradunek Azpeitiko Udalak diru-laguntzak emateko eratutako ordenantza arautzailearen 5. artikuluan eskatutako baldintzak bete beharko dituzte (2012ko maiatzaren 29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 101. zk.).

## AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

*Anuncio*

El Ayuntamiento de Azpeitia en sesión de Pleno de 7 de febrero de 2017 acordó aprobar con carácter inicial las bases reguladoras de la concesión de las becas «Sorkuntza» con cargo a los programas gestionados por el Departamento de Cultura (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de 22 de febrero de 2017 n.º 37).

Transcurrido el plazo de información pública reglamentaria sin que se haya presentado reclamación ni observación alguna, se procede a la publicación de su contenido que integrá, asimismo, la convocatoría de 2017.

*Bases reguladoras para la concesión de becas «Sorkuntza».*

I. OBJETO

*Artículo 1. Objeto.*

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de la solicitud y concesión de las Becas «Sorkuntza» destinadas a la creación cultural.

Se entiende como creación cultural aquella fruto de la imaginación del artista que puede materializarse y adoptar la forma de música, pintura, escultura, obra literaria, obra teatral, obra cinematográfica, cómic, composición sonora, composición audiovisual, composición digital, danza etc.

Las becas, tienen como finalidad ayudar económicamente a los artistas en la creación de su propia obra.

*Artículo 2. Normativa aplicable.*

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre la persona beneficiaria y la entidad otorgante se regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión:

— Ordenanza Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Azpeitia (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa N.º 101, de 29 de mayo de 2012).

— Plan Estratégico de subvenciones del Ayuntamiento de Azpeitia y el Patronato de Euskera vigente.

En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación la Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado* 18-11-2003) y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006.

*Artículo 3. Beneficiarios.*

Podrán obtener esta beca, las personas físicas que se dedican o quieren empezar a dedicarse a algún ámbito cultural.

Además de lo anterior, será requisito indispensable tenga cumplidos los 16 años de edad en la fecha de presentación de la solicitud de ayuda.

Los beneficiarios deberán reunir las condiciones exigidas en el artículo 5 de la Ordenanza Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Azpeitia (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa N.º 101, de 29 de mayo de 2012).

EK\CV GAO-I-2017-02854

II. ESKAERAK

*4. artikulua. Baztertuak.*

Balioespen batzordeak eskumena izango du, kasuz kasu, diru-laguntza eskaera bat deialditik kanpo uztako, betiere honako irizpideak kontuan izanik eta behar bezala arrazoitu ondoren.

Baztertuak izango dira, espreski:

1. Ibilbide luzeko artistak.

Balioespen batzordeak egin litzakeen beste interpretazioaren kalterik gabe, Ibilbide luzetzat ulertuko da, eskaerarekin batera aurkezturiko C.V.-aren baitan eta arlo jakin batean 5 urte baino gehiagoko eskarmentua badu.

2. Kultur arloren batetik 28.000,00 euro gordin urteko baino handiagoko diru sarrera muga gainditzen duten artistak.

3. Elkarteak.

4. Aurreko deialdien baitan, «Sorkuntza» bekaren onuradun izandakoak, beti ere, bekaz laguntzeko aurkezten duen proiektua diziplina berdinekoa bada.

5. Era zuzenean edo zeharka indarkeria bultzatzen duten edota indarkeri motaren bati apologia egiten dioten proiektuak.

Era berean, modu orokorrean deialdi honen bidez lagunduko diren ekintzetatik kanpo geratuko dira honako jarduerak:

— Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzetako Lege Orokorraren 13.2. eta 13.3. artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean sartuak daudenak.

— Bere izaera eta helburuengatik beste udal arlo edo erakunde autonomoren baten programa baten edo batzuen bidez bideratu behar zirenak. Dena den, horrelakoetan, dagokion erakunde edo udal arlora bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

*5. artikulua. Eskabideak aurkeztea.*

Laguntza horiek jaso nahi dituztenek deialdian zehaztutako ereduaren araberako eskabide-eredu ofiziala bete eta aurkeztu beharko dute.

Eskaerak Azpeitiko Udalaren Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, astelehenetik ostiralera 08:30etatik 14:00ak bitartean eta larunbatetan, berriz, 9:00etatik 12:30ak bitartean, edo, nahi izanez gero, urriaren 1eko 38/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 16.4. artikuluan aurreikusitako bitartekoetatik edozein erabiliz.

Hori guztia, 39/2015 Lege berak xedapen indargabetzaile bakarreko 2. atalean ezartzen duenarekin bat.

Eskaera kopurua:

Eskatzaile bakoitzari gehienez ere bi proiektutarako laguntza emango zaio.

Aurkeztu beharreko agiriak:

Eskaera-orriarekin batera, honako agiriak aurkeztu beharko dira:

1. Eskatzailearen eta/edo ordezkariaren Nortasun Agiriaren kopia.

2. Kontu korrontearen titularitatea egiaztatuko duen agiria.

3. Diru laguntza eskatzen den proiektuaren gaineko azalpen txostena.

Proiektu hau ondorengo letra estilo eta neurrira erabili beharko da: Garamond (12 pt), Times New Roman (12 pt), Courier (12 pt) edo Arial, gehienez, alde batetik idatzitako 10 orrialde.

II. SOLICITUDES

*Artículo 4. Exclusiones.*

La comisión de valoración tendrá la facultad de, caso por caso, dejar fuera de la convocatoria una solicitud de ayuda, teniendo en cuenta en todo caso, los siguientes criterios y tras motivarlo debidamente.

Quedan excluidas, expresamente:

1. Los artistas consagrados.

Sin perjuicio de cualquier otra interpretación que pueda realizar la Comisión de valoración, se considerarán artistas consagrados, aquellos que según el C.V. que hayan presentado en su solicitud tengan una experiencia superior a 5 años.

2. Aquellos artistas que superen el límite de ingresos de 28.000,00 euros brutos anuales.

3. Las asociaciones.

4. Aquellos artistas que ya hayan sido beneficiarios de la beca «Sorkuntza» en convocatorias anteriores, siempre que se trate del mismo ámbito o disciplina artística para la que presenta la beca.

5. Proyectos que, de una forma directa o indirecta fomenten la violencia o hagan apología de cualquier manifestación de violencia.

Asimismo, con carácter general, quedan excluidas del ámbito de aplicación de la presente convocatoria las siguientes actividades:

— Aquellas en las que concurra alguna de las circunstancias previstas en el art. 13.2 y 13.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

— Aquellos que por su naturaleza y objeto debieran haberse acogido a otros programas de otros departamentos municipales u organismos autónomos. En todo caso se dará traslado de la solicitud al departamento u organismo correspondiente comunicando tal circunstancia al interesado.

*Artículo 5. Presentación de solicitudes.*

Quienes deseen optar a estas ayudas deberán presentar una solicitud cumplimentada de acuerdo con el modelo oficial que se concrete en la correspondiente convocatoria.

Las solicitudes se presentarán en el registro general del Ayuntamiento de Azpeitia, de lunes a viernes, de 08:30 a 14:00 horas, y los sábados hasta las de 9:00 a 12:30 horas, o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Todo ello, de conformidad con lo establecido en el apartado 2 de la disposición derogatoria única de la misma Ley 39/2015.

Número de solicitudes:

Se subvencionará un máximo de dos proyectos por solicitante.

Documentación a presentar:

Junto a la solicitud, deberá presentarse la siguiente documentación:

1. Fotocopia del DNI del solicitante y/o representante.

2. Documento que acredite la titularidad de la cuenta corriente.

3. Informe explicativo del proyecto para el que solicita la ayuda.

El proyecto del trabajo utilizará el tipo y tamaño de fuente siguientes: Garamond (12 pt), Times New Roman (12 pt), Courier (12 pt) edo Arial y con una longitud máxima de 10 hojas de una cara.

EK\CV GAO-I-2017-02854

4. Curriculum Vitae-a, kultur arloan izandako lan-eskarmentuari mugatutakoa.

5. Proiektuak hala eskatzen duenean, beharrezkoak izan daitezkeen egilearen eskubideak errespetatuko direla adierazten duen zinpeko aitortza.

6. Aurkeztutako proiektua lehenagotik eginda ez dagoela adierazten duen zinpeko aitorpena.

7. Proiektuaren gastu eta diru sarreren aurrekontu zehatza. Aurrekontua orekatua izango da, hau da, diru-sarreren eta gastuen kopuruak berdinak izango dira, eta diru-sarreren atalean eskatzen duen bekaren kopurua jarri beharko da.

8. Administrazioarekin Gizarte Segurantzako betebeharrak eta Zerga obligazioak betetzeari dagokionez egunera dagoela egiaztatzea. Eskaria 3.000 €-tik beherakoa bada, nahikoa izango da horri buruzko zinpeko aitorpena aurkeztearekin.

9. Zinpeko adierazpena, beste diru-sarrera batzuk badauden eta/edo beste erakunde batzuetan diru-laguntza eskatu duen adierazten duena.

10. Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, ardurapeko aitorpena.

Aukeratu gabeko lanak itzuli egingo dira, eta egileek edo horien ordezkariek jaso ahal izango dituzte, epaia ezagutzera eman osteko hiru asteetan.

Horrela egin ezean apurtu eta bota egingo dira. Erakunde antolatzailea ez da arduratuko itzultzean galtzen diren lanez edota kopiez.

*6. artikulua. Eskariak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea deialdian ezarriko da.

*7. artikulua. Akatsak zuzentzea.*

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, eskatzaileei hamar lan-eguneko epea emango zaie, jakinarazpena jasotako egunaren biharamunetik hasita, aurkitutako hutsak konpon ditzaten. Emandako epea amaitutakoan akats horiek konpondu gabe baleude, eskaera bertan behera utzi dutela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

III. BEKA EMATEA

*8. artikulua. Aurrekontua.*

Diru-laguntza hauek Azpeitiko Udalaren aurrekontu propiotik finantzatuko dira. Deialdiak ezarriko du aurrekontuko zein kreditu zehatzen kontura finantzatuko diren.

*9. artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa.*

Deialdian aurreikusitako beken zenbatekoa honako hau izango da: 12.000,00 € banatuko dira gehienez.

Diru kopuru hau eman daitekeen gehienezkoa izango da.

Balioespen batzordeak erabakiko du zenbat beka eman eta zenbatekoak.

Edozein kasutan, diru-laguntzaren zenbatekoa inolaz ere ez da izango –hura bakarrik hartuta edo beste Administrazio Publikoek, edo beste Erakunde publiko eta pribatuek emaniko laguntza edo diru-laguntza batekin batuta– onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

4. Curriculum Vitae, acotado a la experiencia profesional en el ámbito cultural.

5. En el caso de que el proyecto así lo requiera, declaración jurada de que se respetarán los derechos de autoría que sean necesarios.

6. Declaración jurada de que el proyecto presentado no ha sido desarrollado con anterioridad.

7. Presupuesto detallado de los ingresos y gastos del proyecto deberá ser un presupuesto equilibrado en el que la suma total de ingresos y la de gastos sean equivalentes, debiendo ponerse en el apartado de ingresos el importe de la beca que se solicita.

8. Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social frente a la Administración. En caso de que la solicitud sea inferior a 3.000 € bastará con presentar una declaración jurada al respecto.

9. Declaración Jurada en el que se haga constar, en su caso, la existencia de otros ingresos y/o solicitudes de subvención realizada ante otras Instituciones.

10. Testimonio, certificados o, en su caso, declaración responsable de no concurrir en la persona solicitante ninguna causa impeditiva de la condición de beneficiario o beneficiaria.

Proyectos no seleccionados se devolverán y podrán ser recogidos por los/las autores/as o personas designadas por los/las mismos/as en el plazo de tres semanas.

Los proyectos que no sean recogidos en este plazo serán destruidos. El Ayuntamiento no se hace responsible de los proyectos que se extravíen durante el proceso de devolución.

*Artículo 6. Plazo de solicitud.*

El plazo de presentación de las solicitudes se fijará en la convocatoria.

*Artículo 7. Subsanación de errores.*

Cuando la instancia de solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a las entidades interesadas un plazo de diez días hábiles, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, para subsanar los errores detectados. Transcurrido el plazo concedido sin que se subsanen los defectos detectados, se les tendrá por desistidos de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos del artículo 68,1 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

III. CONCESIÓN DE LA BECA

*Artículo 8. Presupuesto.*

Las ayudas económicas se financiarán con cargo a los Presupuestos propios del Ayuntamiento de Azpeitia. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios concretos con cargo a los cuales serán financiadas.

*Artículo 9. Cuantía de las ayudas.*

El importe máximo de las becas previstas en esta convocatoria es el siguiente: un máximo de 12.000,00 €.

El importe mencionado es el máximo que se puede conceder.

La comisión de valoración decidirá el número de becas que se concederán y su importe.

En todo caso, el importe de la subvención que se conceda no podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras Administraciones Públicas, o de otras entidades públicas o privadas, supere el coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario.

EK\CV GAO-I-2017-02854

Diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienez, diruz lagun daitekeen inbertsioaren balioaren % 100 artekoa izango da.

*10. artikulua. Diru-laguntza ordaintzea.*

Programa honen kontura emandako diru-laguntzak bi zatitan ordainduko dira: % 50a ebazpena onartzean, eta gainerakoa ekimena justifikatzeko dokumentazioa aurkezten dutenean.

Dena dela, salbuespen moduan, diru-laguntza eskaeraren zenbatekoak 3.000 €-ko kopurua gainditzen ez badu, diru-laguntza emateko hitzarmen edo ebazpenean onartu ahal izango da egiaztatze hori egin aurretik egitea ordainketak, diru-laguntzaren helburu den ekimenak berekin lekartzakeen jarduerak burutu ahal izateko.

Emandako diru-laguntza, bankuko transferentzia bitartez ordainduko da, elkarte edo pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean.

*11. artikulua. Beste diru-laguntzekin bateragarritasuna.*

Oinarri hauen arabera emandako diru-laguntzak helburu berarekin ematen diren beste diru-laguntzekin bateragarriak izango dira, beti ere gain-finantziaziorik ez balego.

IV. PROZEDURA

*12. artikulua. Balorazio irizpideak.*

Aurkeztutako proiektuak edo artelana baloratzeko erabiliko diren irizpideak honako hauek izango dira:

— Aurkeztutako proiektuaren interesgarritasuna, kalitatea eta originaltasuna: 0-30 puntu.

— Proiektu berean bi kultur disziplina edo gehiago erabiltzea: 0-10 puntu.

— Azpeitiko kultur arloari ekarpena egitea:0-10 puntu.

— Sormen arloan berria izatea: 0-5 puntu.

— Genero ikuspegia, Gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen errealitatea kontuan hartzea. 0-5 puntu.

— Azpeitian erroldatua izatea gutxienez bi urtez: 0-5 puntu.

Beka puntuaziorik altuena lortzen duenari emango zaio, gutxienez 35 puntu lortu behar direlarik.

*13. artikulua. Prozedura.*

Gauzatzea eta proposamena.

1. Kultura saileko talde teknikoari dagokio deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzen kudeaketa lanak burutzea.

2. Eskaerak kide anitzeko balioespen batzorde batek aztertu eta ebaluatuko ditu. Batzorde misto honek Kultura, Euskara eta Parte-hartzea Batzordeko hiru kidez eta Kutur Mahaiko hiru kidez osatua egongo da, zeinak, ebazpen-proposamena prestatuko duen.

Kultura, Euskara eta Parte-hartzea Batzordeko Lehendakariak izango du, berdinketa kasuan kalitate botoa.

3. Diru-laguntzen ebazpen proposamena edo behin-behineko ebazpenaren proposamena interesatuei jakinaraziko zaie, eta hamar eguneko epea emango zaie, egoki iritzitako alegazioak egiteko.

Jakinarazpen prozesuak sinpleago, azkarrago eta errazagoak izan daitezen, ebazpen-proposamena telefonoz jakinaraziko zaie entitate eskatzaileei, bai eta udal jakinarazpenak eta dokumentazioa jasotzeko emandako posta elektronikoan ere (espedientean izapidetuko da interesatuak jakinarazpen hori eman duela).

La cuantía máxima subvencionable será hasta el 100 % del valor de la inversión subvencionable.

*Artículo 10. Abono de las ayudas.*

El abono se realizará mediante 2 pagos, el 50 % una vez aprobada la resolución y el resto después de la entrega de la documentación justificativa.

No obstante, en casos excepcionales, en los casos en los que la solicitud de ayuda no supere la cantidad de 3.000 €, en el convenio o resolución de la concesión de la ayuda podrá aprobarse la realización de pagos anticipados con carácter previo a la justificación, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención.

La subvención concedida será abonada, mediante transferencia bancaria, en la cuenta corriente señalada por la entidad o persona beneficiaria.

*Artículo 11. Concurrencia con otras ayudas.*

Las ayudas concedidas de acuerdo con estas bases serán compatibles con otras ayudas destinadas para el mismo fin, siempre y cuando no exista sobrefinanciación.

IV. PROCEDIMIENTO

*Artículo 12. Criterios de valoración.*

Los criterios que serán aplicados para la valoración de los proyectos o obras presentadas son:

— Interés, calidad y originalidad del proyecto presentado: 0-30 puntos.

— Integrar en el proyecto dos o más disciplinas culturales: 0-10 puntos.

— Aportación a la cultura de Azpeitia: 0-10 puntos.

— Ser nuevo en el ámbito creador: 0-5 puntos.

— Tener en cuenta la perspectiva de género, la realidad de las personas en situación de exclusión o riesgo de estarlo: 0-5 puntos.

— Estar empadroando en Azpeitia durante un periodo mínimo de dos años: 0-5 puntos.

La beca se concederá a quien obtenga la mayor puntuación, siempre que se alcancen los 35 puntos.

*Artículo 13. Procedimiento.*

Instrucción y propuesta.

1. Corresponderá al grupo técnico del Departamento de Cultura la realización de la instrucción de las ayudas previstas en la presente convocatoria.

2. Las solicitudes serán estudiadas y evaluadas por una comisión mixta evaluadora compuesta por tres miembros de la correspondiente Comisión Informativa de Cultura, Euskara y Partticipación y por tres miembros de la Mesa de Cultura, que realizará una propuesta de resolución.

El Presidente de la Comisión Informativa de Cultura, Fiestas, Juventud, Euskara y Educación, tendrá el voto de calidad en caso de empate.

3. Se realizará la notificación de la propuesta de resolución o resolución provisional a las personas interesadas concediéndoles un plazo de diez días para la presentación de alegaciones.

A efectos de simplificar, agilizar y facilitar el proceso de notificaciones, se comunicará la propuesta de resolución por telefono y a través de la oportuna dirección de correo electrónico en la que desean recibir la documentación y comunicaciones municipales (se diligenciará en el expediente la constancia de la comunicación por el interesado).

EK\CV GAO-I-2017-02854

4. Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpenaren proposamena egingo da; eta hor zehaztuko da diru-laguntza zein eskatzaileri ematea erabaki den, eta diru-laguntzaren zenbatekoa. Diru-laguntza hori, hura jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei emango zaie, eta beraz, behin-behineko zerrenden ebazpenaren aurka aurkeztutako alegazioak onartu egingo balira, behin betiko zerrendetako diru-kopuruetan aldaketak gerta daitezke.

5. Adierazitako epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko ebazpen horrek behin betiko izaera hartuko du.

Ebazpena.

1. Behin betiko proposamen ebazpena onetsi ondoren, Alkatetzak prozedura ebatziko du oinarrietan dioenaren arabera arrazoitutako ebazpen baten bidez. Prozeduran kreditatuta egon beharko dute ebazpenerako erabili dituen oinarriak.

2. Ebazpenean berariaz jakinaraziko da gainontzeko eskaerak gaitzetsi egin direla, beste eskaerarik balego, behintzat.

3. Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, diru-laguntzen deialdia argitaratzen den egunetik hasita. Aipatutako epean ebazpenik ez balego, aurkeztutako eskaera atzera bota dela adierazi nahiko du.

4. Ebazpenean diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa-era zehaztu egingo dira.

V. DIRU-LAGUNTZEN KONTROLA

*14. artikulua. Onuradunen eskubideak eta betebeharrak.*

a) Eskubideak.

Onuradunek, beren proiektuak garatu edo gauzatzeko, eskuragai izango dute Soreasu Auzoa 1 zenbakian kokaturiko Soreasu Kulturguneko «Dinamo Aretoa».

b) Bete beharrak.

Emandako laguntza justifikatzeko, erakunde onuradunek Azpeitiko Udalaren Diru-laguntzak emateko Ordenantzaren 6. artikuluan adierazitako bete-behar orokorrak bete beharko dituzte.

Edonola ere, onuradunak hauek agertu beharko ditu:

1. Diru-laguntza ematea oinarritzen duen egoeran jarduera egitea edo jokabidea hartzea.

2. Jarduera egiten ari dela edo jokabidea hartu duela frogatzea, bai halaber laguntza emateko edo horretaz gozatzeko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela.

3. Diruz lagundutako jarduera burutzeko behar diren baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.

4. Onuradunak, bere artelanaren aurkezpena jendaurrean burutuko du Azpeitian eta proiektua aurkezteko erabili den hizkuntzan. Aurkezpen horretarako eguna eta lekua kide anitzeko balioespen batzordea eta artistaren artean zehaztuko da.

5. Diruz lagundutako jarduera burutzeko garaian sortzen diren hondakinak modu egokian kudeatu beharko dira; hau da, gaika sailkatuak izan beharko dute eta horretarako aurreikusita dauden guneetan edota edukiontzietan utzi.

6. Entitate laguntza-emaileak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea.

7. Jasotako diru-laguntza itzuli beharko du onuradunak, laguntza hori emateko ezarritako baldintzak ez baditu betetzen, edota jasotako diru-kopurua gauzatu duen jardueraren kostua baino handiagoa bada.

4. Examinadas las alegaciones en su caso presentadas, se formulará propuesta de resolución definitiva que deberá expresar la relación de personas solicitantes para las que se propone la concesión de la subvención y su cuantía. La subvención se concederá entre todos los que hayan cumplido las condiciones; por lo tanto, en caso de que se aprueben las alegaciones presentadas ante la resolución de las listas provisionales, pueden haber cambios en las cantidades de las listas definitivas.

5. En caso de no existir alegaciones en el plazo indicado, la resolución provisional se convertirá en definitiva.

Resolución.

1. Una vez aprobada la propuesta de resolución definitiva, la Alcaldía resolverá el procedimiento mediante resolución motivada de conformidad con lo que dispongan las bases, debiendo quedar acreditados en el procedimiento los fundamentos de su resolución.

2. La resolución hará constar de manera expresa la desestimación, en su caso del resto de las solicitudes.

3. El plazo máximo para resolver y notificar será de seis meses desde el día en que se publique la convocatoria. La falta de resolución en el plazo indicado supondrá la desestimación de la solicitud presentada.

4. En la resolución se hará constar la cuantía de la subvención y la forma de pago.

V. CONTROL DE LA SUBVENCIÓN

*Artículo 14. Derechos y obligaciones de las personas beneficiarias.*

a) Derechos.

Los beneficiarios podrán hacer uso de la sala «Dinamo» del Edificio Socio-cultural Soreasu, situado en Soreasu Auzoa 1, para desarrollar o ejecutar sus proyectos.

b) Obligaciones.

A efectos de justificación las entidades beneficiarias deberán cumplir con las obligaciones generales establecidas en el artículo 6.º de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Azpeitia.

En todo caso, el beneficiario tendrá:

1. Realizar la actividad o adoptar el comportamiento en la situación que fundamenta la concesión de la subvención.

2. Acreditar la realización de la actividad o la adopción del comportamiento, así como el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinen la concesión o disfrute de la ayuda.

3. Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para la realización de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.

4. El beneficiario, realizará una presentación de su obra artística ante el público en Azpeitia y en el idioma de presentación del proyecto. La fecha y el lugar de la presentación se acordará entre la comisión evaluadora y el artista.

5. Los residuos que se generen en la realización de la actividad subvencionada deberán ser tratados de forma adecuada; es decir, deberán ser clasificados por materias y depositados en los lugares y/o contenedores previstos para ello.

6. El sometimiento a las actuaciones de comprobación.

7. La obligación de reintegrar la ayuda en caso de incumplimiento de las condiciones establecidas para la concesión de la ayuda o subvención, o del exceso obtenido sobre el coste de la actividad desarrollada.

EK\CV GAO-I-2017-02854

8. Espedientea izapidetzen ari den departamenduak, Udalaren Kontu-hartzaileak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste organo eskudunen batek eskatutako informazioa emateko bete beharra du onuradunak.

*15. artikulua. Jarraipen eta ebaluazio batzordea.*

Oinarri hauen baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta proiektuen azken emaitzen balioespena egiteko, baita, udal kultura eremuan izandako eragina, jarraipen eta ebaluazio Batzorde bat sortuko da.

Jarraipen eta ebaluazio Batzorde honek, gutxienez, hiru kide izango ditu gutxinez eta bost gehienez. Hauek, Kultura, Euskara eta Partehartze Batzorde Berriemaileko eta Kultur Mahaieko kideek osatuko dute.

*16. artikulua. Diruz laguntzeko gastuak.*

1. Deialdi honetan ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen gastuak dira diruz lagundu asmo den jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe dagozkionak, eta berariazko oinarri erregulatzaileetan ezarritako epean egiten direnak. Diruz lagundutako elementuen erosketa kostuak ezin dezake inoiz merkatuko balioa baino handiagoa izan.

*17. artikulua. Zuriketa.*

Modu orokorrean, oinarri hauen xede diren diru-laguntzak egiaztatzeko, ondorengo egiaztatze agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Jarduketa memoria, diru-laguntza ematean jarritako baldintzak bete izana frogatuko duena, zer jarduera burutu diren eta zer emaitza lortu diren adierazita. Gainera, bidezko denean, partaideen datuak adieraziko dira, sexua aipatuta eta, ahal den neurrian, datu horien azterketa eta interpretazioa.

b) Jardueran izandako gastu eta inbertsioak sailkatzeko zerrenda. Hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazi behar dira. diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, zein desbiderapen izan den adierazi behar da.

c) Diruz lagundutako jarduketa finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Egindako lanaren egiaztapen eta lekuko gisa baliagarri izango den dokumentazio grafiko edo ikus-entzunezkoa.

Diru-laguntza ematen duen organoak behar adina frogagiri egiaztatuko du, diru-laguntza behar bezala erabili dela zentzuz agerian uzteko beharrezkoak diren guztiak. Horretarako, berak hautatutako gastu frogagiriak bidal ditzala eskatuko dio onuradunari.

Agiriak aurkezteko epea:

Artikulu honetan zerrendatutako egiaztagiriak, urte bakoitzean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den deialdian adierazitako epearen barruan aurkeztuko dira.

Deialdian, diru-laguntza egiaztatzeko ezarritako epea igarota, onuradunak ez baldin badu aurreko atalean aipatutako dokumentazioa aurkeztu, Azpeitiko Udalak diru-laguntzak emateko ordenantza arautzaileko 16. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Hau da, egin beharreko justifikazioa edota txostena zehaztutako epean ez aurkezteak automatikoki ekarriko du diru-laguntza ezestea, edota jasotako diru-kopurua itzuli beharra.

VI. ARGITARA EMATEA

*18. artikulua.*

Emandako diru-laguntzen zerrenda, onuradunen izen-abizenekin eta emandako kopuruekin, Azpeitiko Udalaren web orrian

8. La obligación de facilitar cuanta información le sea requerida por el Departamento que tramita el expediente, la Intervención del Ayuntamiento, el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas u otros organos competentes.

*Articulo 15. Comisión de seguimiento y evaluación.*

Con el objetivo de controlar el cumplimiento de las condiciones establecidas en las presentes bases y valorar los resultados finales de proyectos y su impacto en el ámbito de la cultura local, se constituirá una Comisión de seguimiento y evaluación.

Esta Comisión de seguimiento y evaluación contará con un mínimo de tres miembros y un máximo de cinco. Éstos serán elegidos entre los miembros de la Comisión Informativa de Cultura, Euskara y Participación del Ayuntamiento de Azpeitia y la Mesa de Cultura.

*Artículo 16. Gastos subvencionables.*

1. Se consideran gastos subvencionables, a los efectos previstos en esta convocatoria, aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, y se realicen en el plazo establecido por las diferentes bases reguladoras específicas de las subvenciones. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

*Artículo 17. Justificación.*

Con carácter general, las subvenciones objeto de las presentes bases se justificarán mediante la presentación de la documentación justificativa que contendrá:

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos; se incluirán, cuando sea pertinente, los datos de participación diferenciados por sexo, así como, en la medida de lo posible, el análisis y la interpretación de los mismos.

b) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión, y en su caso fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con relación a un presupuesto estimado, se indicarán las desviaciones acaecidas.

c) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad, con indicación de su importe y su procedencia.

d) Documentación gráfica o audiovisual que sirva para acreditar y testimoniar la labor realizada.

El órgano concedente comprobará los justificantes que permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención, a cuyo fin podrá requerir a la persona beneficiaria la remisión de los justificantes de gastos seleccionados.

Plazo de justificación:

La documentación justificativa relacionada en este artículo deberá presentarse dentro del plazo establecido en la convocatoria anual en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

Transcurrido el plazo establecido en la convocatoria para la justificación de la subvención sin que se hubiese presentado la documentación a que se refiere el apartado anterior, tendrá los efectos previstos en el artículo 16 de la Ordenanza reguladora de la concesión de ayudas del Ayuntamiento de Azpeitia.

Es decir, la falta de justificación y del informe pertinente en el plazo que se señale producirá la obligación de devolver la cantidad subvencionada y no justificada.

VI. PUBLICIDAD

*Artículo 18.*

La relación de subvenciones concedidas, con indicación de las personas beneficiarias y sus cuantías se publicará en la

eta iragarki-oholean argitaratuko da, eta balegokio, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN ere bai.

Diru-laguntzen datuak ez dira argitaratuko, baldin eta diru-laguntzak argitaratze hori pertsona fisikoen ohorearen errespetu eta babesaren nahiz intimitate pertsonal zein familiarraren aurkakoa denean, eta diru-laguntza hori arautzen duten oinarrietan horrela jasota dagoenean.

VI. OINARRIEN INTERPRETAZIOA

*19. artikulua.*

Oinarri hauen interpretazioaren harira sor daitekeen edozein zalantza Udalak erabakiko du.

Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan Azpeitiko Diru-laguntzak emateko Ordenantzan ezarritakoa izango da aplikagarri, eta baita Diru-laguntzen gaineko 38/2003 Lege Orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoa ere.

VII. ELEGITEAK

Oinarri hauen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean. Epeak, beti ere, oinarri hauek argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko dira zenbatzen.

I ERANSKINA

«SORKUNTZA» BEKAK EMATEKO 2017. EKIALDIRAKO DEIALDIA

1. *Deialdiaren xedea.*

Deialdi honen helburua da 2017 ekitaldirako, sortzaile berriei, kultur sorkuntzarako «Sorkuntza» bekak emateko deialdia argitaratzea.

2. *Baliabide ekonomikoak.*

2017 aurrekontu ekitaldian, programa honen xede diren diru-laguntzetara bideratutako diru kopurua 12.000 € koa izango da eta Kultura Sorkuntza ataleko 1.0401.481.334.00.04 aurrekontu-partidatik finantzatuko da.

3. *Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

4. *Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

Eskaerak deialdi honi atxikitzen zaion Eranskinaren arabera beteko dira eta honi, oinarrien 5. artikuluan agindutakoa betetzen duen dokumentazioa erantsiko zaio.

5. *Gauzatzeko epea eta proiektuak nola justifikatu.*

Orokorrean proiektuak gauzatzeko eta gastuen sortzapena (fakturazioa) 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31a bitartekoa izango da.

Diruz lagundutako xedea bete dela justifikatzeko epea: onuradunek oinarrien 17. artikuluan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute deialdi urtea bukatzen denetik hasita eta hilabeteko epean.

Hau da, 2018ko urtarrilaren 31a baino lehen.

Azpeitia, 2017ko apirilaren 24a.—Alkatea. (2854)

página web del Ayuntamiento de Azpeitia y en el tablón de anuncios del mismo y en su caso, serán también publicadas en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

No se publicarán los datos de las subvenciones cuando su publicación, en razón del objeto de la subvención, pueda ser contraria al respeto y salvaguarda del honor, la intimidad personal y familiar de las personas físicas y así se recoja en las bases reguladoras de la concreta subvención.

VI. INTERPRETACIÓN DE LAS BASES

*Artículo 19.*

Cualquier duda que pueda surgir en torno a la interpretación de estas bases, será resuelta por el Ayuntamiento.

En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en la Ordenanza General de Subvenciones de Azpeitia y la Ley 38/2003 General de Subvenciones y demás disposiciones legales comunes.

VII. RECURSOS

Contra las presentes bases podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo. Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente a la publicación de las presentes bases.

ANEXO I

CONVOCATORIA 2017 PARA LA CONCESIÓN DE BECAS «SORKUNTZA»

1. *Objeto de la convocatoria.*

Es objeto de la presente convocatoria la anunciar la convocatoria para el año 2017 de la concesión de las becas «Sorkuntza» destinadas a la cración cultural.

2. *Recursos económicos.*

El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 12.000 € para el ejercicio presupuestario 2017, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria 1.0401.481.334.00.04 Creación Cultural.

3. *Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

4. *Documentación a presentar.*

Las solicitudes deberán presentarse conforme al modelo de solicitud que se acompaña como Anexo a esta convocatoria, a la que deberá acompañarse la documentación en los términos previstos en el artículo 5 de la convocatoria.

5. *Fechas de ejecución y justificación de los proyectos.*

Con carácter general el periodo de ejecución de los proyectos y devengo (facturación) de gastos será desde el 1 de enero de 2017 hasta el 31 de diciembre de 2017.

Plazo para justificar el objeto de la subvención: los beneficiarios deberán presentar la documentación requerida en el artículo 17 de las bases, dentro primer mes siguiente a la finalización del año de la convocatoria.

Es decir, antes del 31 de enero de 2018.

Azpeitia, a 24 de abril de 2017.—El alcalde. (2854)

EK\CV GAO-I-2017-02854

AZPETIKO UDALEKO ALKATE –LEHENDAKARI JAUN/ANDREA

| **A EREDUA (ele bitan)** | **MODELO A (bilingüe)** |
|---|---|

**2017 URTERAKO DIRULAGUNTZA PROGRAMEN DEIALDIA**
CONVOCATORIA DE LOS PROGRAMAS DE SUBVENCIONES PARA EL AÑO 2017

**ESKATZAILEA / SOLICITANTE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| ERAKUNDE ESKATZAILEA / ENTIDAD SOLICITANTE | | IFK-IFZ/CIF-NIF | |
| ERAKUNDEAREN HELBIDEA / DOMICILIO SOCIAL | HERRIA /POBLACION | TELEFONOA | FAXA |

**ERAKUNDEAREN ORDEZKARIA / REPRESENTANTE DE LA ENTIDAD**

| | | | |
|---|---|---|---|
| IZEN ABIZENAK /NOMBRE Y APELLIDOS | KARGUA /CARGO | NAN/DNI | |
| HELBIDEA / DOMICILIO | HERRIA /POBLACION | PROBINTZIA | TELEFONOA |

**BANKETXEA / ENTIDAD BANCARIA**

| | |
|---|---|
| BANKETXEA /ENTIDAD BANCARIA | KONTU KORRONTEAREN ZKIA. / Nº CUENTA CORRIENTE |

Goian adierazten diren datuak dituen pertsonak ondokoa **ESKATZEN DU**/ La persona cuyos datos arriba se indican **SOLICITA**

Dirulaguntza eskatzen den proiektuaren izena eta deskribapena / Denominación y descripción del Proyecto para el que se solicita la subvención:
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
…………………………………………………………………………………….....

EK\CV GAO-I-2017-02854

Ondoren zehazten den Laguntza Programarako dirulaguntza eman dakiola: / Le sea concedida subvención para el Programa de Ayudas que a continuación se recoge:

**Zenbatekoa (BEZ GABE/BEZ BARNE)/ Importe (SIN IVA/CON IVA):**
………………………..………………€

**Programa gauzatzeko beste diru-sarrerak / Otros ingresos para el programa:**

| **Kontzeptua/concepto** | **diru-sarreraren zenbatekoa/cuantía del ingreso** |
|---|---|
| norberaren aportazioa /aportación propia | |
| Azpeitiko Udala/Ayuntamiento de Azpeitia | |
| Beste Erakundeak/Otras instituciones | |
| GUZTIRA /TOTAL | |

**ERANSTEN DIREN AGIRIAK /DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA:**

- ❑ Eskatzaile edo/eta Ordezkariaren NAN agiriaren kopia.
- ❑ Erakundea edo enpresaren IFK agiriaren kopia.
- ❑ Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Entitate Erregistroan izena emanda dagoenaren Ziurtagiria, badagokio.
- ❑ Kontu Korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.
- ❑ Elkartearen jarduera orokorraren memoria.
- ❑ Dirulaguntza eskatzen denerako proiektu, jarduera edo programaren memoria.
- ❑ Elkartearen jarduera orokorraren gastuen eta sarreren aurrekontua
- ❑ Dirulaguntza eskatzen denerako proiektu, jarduera edo programaren gastuen eta sarreren aurrekontua.
- ❑ Eskabidearen aurreko urteari dagozkion gastu eta dirusarreren likidazio erreala edo balioetsia, entitatearen jarduera orokorrari buruz nahiz dirulaguntza xede duen proiektu edo jarduera espezifikoari buruz, baldin eta jarduera horiek iaz egin badira.
- ❑ Administrazioarekin Zerga obligazioak betetzen dituela egiaztatzea.
- ❑ Zinpeko adierazpena, non-eta, hala badagokio agertuko den beste dirusarrera batzuk daudela eta/edo beste erakundeetan dirulaguntza eskatu duela.
- ❑ Oinarri espezifikoetan eskatutako beste agiriak

- ❑ Fotocopia del DNI del solicitante y/o representante
- ❑ Fotocopia del CIF de la entidad o la empresa
- ❑ Certificado de inscripción en el Registro de Asociaciones y Entidades del Gobierno Vasco, en su caso.
- ❑ Documento que acredite la titularidad de la cuenta.
- ❑ Memoria de la actividad general de la entidad.
- ❑ Memoria del proyecto, actividad o programa específico para el que se solicita la subvención
- ❑ Presupuesto de gastos e ingresos de la actividad general de la entidad.
- ❑ Presupuesto de gastos e ingresos del proyecto, actividad o programa específico para el que se solicita la subvención.
- ❑ Liquidación real o estimada de los gastos e ingresos del año anterior al de la solicitud relativa tanto a la actividad general como al proyecto o actividad objeto de subvención caso de que se hubiera llevado a cabo.
- ❑ Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias frente a la Administración.
- ❑ Declaración Jurada en el que se haga constar, en su caso, la existencia de otros ingresos y/o solicitudes de subvención realizada ante otras Instituciones.
- ❑ Otra documentación requerida en las Bases Específicas.

…

**KONPROMISOA**

Honen bitartez, sinatzaileak parte hartzen duen moduan eta eskaria aurkezten duen deialdiko dirulaguntza jasoz gero, deialdian finkatutako baldintzak eta eskakizunak betetzeko konpromisoa hartzen du sinatzaileak, baita, oinarri horiek betetzen ez baditu, jasotako zenbatekoa itzultzekoa ere.

**COMPROMISO**

Por la presente, el abajo firmante se compromete, en la calidad en la que interviene y en el supuesto de recibir la subvención de la convocatoria para la que presenta solicitud, a cumplir las condiciones y requisitos establecidos en la misma y a reintegrar el importe recibido en caso de incumplimiento de los mismos.

EK\CV GAO-I-2017-02854

**BAIMENA**

Honen bitartez, sinatzaileak baimena ematen du:

- Azpeitiko Udalak deialdi honetan ezarritako baldintzen datuak egiaztatzeko, datu horiek Udalaren esku daudenean.
- Dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek, estatukoak nahiz erkidegokoek, egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontroleko beste edozein ere, eta errekeritzen zaien informazioa eman behar dute, aurreko jardunak burutzeko.

**AUTORIZACIÓN**

Por la presente, el abajo firmante autoriza:

- A que el Ayuntamiento de Azpeitia compruebe aquellos datos que siendo requisitos establecidos en la presente convocatoria, obren en poder del Ayuntamiento.
- Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto nacionales como comunitarios, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

ESKATZAILEA/SOLICITANTE
(SINADURA / FIRMA)

Azpeitian,………………………………………….

AZPEITIKO UDALEKO ALKATE –LEHENDAKARI JAUN/ANDREA
SR/SRA. ALCALDE – PRESIDENTE DEL AYUTAMIENTO DE AZPETIA

EK\CV GAO-I-2017-02854